

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Albiztur



Aurkibidea

Udalerria: Albiztur

Sarrera



Tolosaldea eskualdean kokaturik dagoen udalerria da. Salubita haranean dago kokaturik: Alkiza du iparraldean; Tolosa eta Legorreta hegoaldean; eta, Bidegoian eta Beizama mendebaldean. Mendiko nekazaritza, abeltzaintza eta baso-esplotazioak nagusitzen dira. Gaur egun, gutxi gorabehera, udalerriak 70 nekazal eta abeltzaintza esplotazio ditu, esplotazioak normalean familiartekoak dira, baserrirantz zuzenduak. Industriari buruz, aldiz, papergintza industria bat da, 60 bat langile dituena. Biztanle gehienak industrian eta Tolosa herriko zerbitzuetan lan egiten du. Tolosa gertu dagoenez, albizturtar asko Tolosara joaten dira zerbitzu bila. Bertako euskara erdialdeko euskararen aldaera bat da, Beterrikoa.

- **Biztanleak:** 314
- **Euskaldunak:** %96,76

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **11**
- Zintak: **13**
- Pasarteak: **70**
- Transkribatutakoak: **10**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **55**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- Fondo partikularrak

Hizlariak

Pedro Arrue Aizpurua (1927-2014)



Albizturko Zamora baserrian jaioa. Aita jaiotetxe berekoa zuen, eta ama, berriz, Albizturko Gaiztarro baserrikoa. Zamora kalean bertan dago, eta Pedoren aitak beste bi baserri erabiltzen zituen lanerako, herritik gora daudenak. Horietako batera joan ziren bizitzera Pedrok hamaika urte zituela; Muñaburu Azpira. Hamaika senide ziren etxean, eta denek egiten zuten lan etxean. Hala ere, Pedoren gurasoek garrantzia ematen zioten eskolari, eta hamabi urterekin Herri Eskolatik atera zenean, Ordiziara joan zen ikastera, partikular. Handik itzultitakoan, baserriko martxari segi zion, eta hala bizi izan da geroztik.

Clara Dorronsoro Otegi (1908-1998)

Clara Dorronsoro Albizturren jaio zen 1908. urtean. Ume zela baserria erre egin zitzaion eta familia osoa Bidanira joan zen bizitzera. Ondoren, Juan Elortza azkoitiarrarekin ezkondu eta Eibarrera joan ziren bizi izatera "Buenos Aires" izeneko etxera (Barakaldo kalean). Hasiera batean ez zen batere ondo moldatu Eibarko euskararekin, asko kostatzen baitzitzaion herriko euskara ulertzea. Gerra garaia Bizkaian igaro ondoren, berriro itzuli ziren Eibarrera eta hantxe jarraitu zuen hil zen arte. Bere senarra okina zen eta Clarak animaliak eta baratzea zituen etxean bertan. Garai batean ikatz-banaketan ere jardun zuten.

Mari Carmen Itxaso Lizaso (1926)



Albizturko Larreta baserrian jaioa. Bederatzi senidetan zaharrena zen Mari Carmen. Haurtzaroko oroitzapenak bere anai-arrebekin ditu lotuak, haiek zaintzen amandako denbora dela eta. Gazterik joan zen neskame Donostiara, Nicolasa jatetxean sukaldaritza ikastera. Handik etxera itzuli zen, eta hogeita lau urte zituela ezkondu zen Urkizuko Urkizu Gainkoa baserrira. Han taberna zuen senarraren familiak, eta bertan lanean aritu da harrez gero.

Carmen Larrarte Zuriarrain (1935)



Albizturko Olateaga baserrian jaioa. Bai aita eta bai ama jaiotetxe bertakoak zituen, bi bizitzakoa baita baserria. Hiru ahizpa ziren etxean, eta bera erdikoa. Lanerako mutilik ez etxean, eta berak egiten omen zituen ohituraz mutilei zegozkien lanak. Segan abila, berak pikatzen eta zorrozten zituen etxeko segak. Baserrian lan egin izan du beti.

Mahai-ingurua Albizturren



Albizturren elkartu ginen, herriko udalaren laguntzaz, udaletxeko gela batean tertulia moduko bat egiteko. Han izan ziren Ageda Elola Isasti, Loreto Saizar Uranga, Martina Elola Unanue, Carmen Uranga Alberdi eta Jexuxa Uranga Alberdi.

Karmele Maiz Ugartemendia (1931)



Urretaberri baserrian jaioa. Zortzi senidetan gazteena, eskolara joateko senideak baino zorte hobea izan zuen. Tarteka, ordea, amari laguntzen zion Tolosara esnea banatzera, baita larunbatetan Zerkausira ere berdura saltzera. Gazte garaiko bizimoduak asetzen ez zuela-eta, moja sartzea erabaki zuen 26 urterekin. Orduantxe sortu berria zen Tolosako Gainberri komentuan sartu zen Albizturko beste bi lagunekin batera. Karmelek ez luke atzera egingo eta ez da behin ere damutu moja sartu izana, oso zoriontsu bizi dela aitortu du. Moja baten bizipen eta sentipenak kontatu ditu.

Joxe Malbadi Olano (1921)



Albizturko Babilonia baserrian jaioa. Bederatzi senidetan zaharrena zen. Gerra hasi zenean hamalau urte zituen, eta 1942an soldadu eraman zuten. Hala pasatu zituen bi urte eta hiru hilabete. Handik itzuli zenean, etxeko martxa hartu zuen beregain. Ordurako, hamasei urte zituela hasi zen lanean Illarramendi paper-lantegian eta hara itzuli zen berriz ere. Berrogeita zortzi urtez egin zuen lan bertan, erretiroa hartu zuen arte.

Joxe Manuel Muñoa Etxeberria (1928)



Albizturko Gomaiztegi baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen, eta ama ere Albizturkoa, familia Gaztelukoa bazuen ere. Gerra hasi zenean zortzi urte besterik ez zituen, baina gogoan du Urkizutik tiroz nola moztu zioten adarra etxe pareko lizarrari Francoren aldekoek. Sei senidetan bosgarrena, gazterik hasi behar izan zuen lanean. Basoan hasi zen lehenik, pinudiak garbitzen; eta, ondoren, fabrikan hasi zen lanean, Arzabaltza paper-lantegian. 1956an hasi zen anaia batekin batera, eta hogeita zortzi urte eman zituen bertan lanean, erretiroa hartu zuen arte.

Carmen Uranga Alberdi (1929)



Ama Albizturko Itxaso baserrikoa zuen, eta aita, berriz, Laskibar baserrikoa. Carmen bera, Albizturko Elane-n jaio zen, nahiz eta bera eta bere senideak jaiotzerako herritarrek Estanga deitzen zioten etxeari. Izan ere, Carmenen jaiotetxea taberna, denda eta estankoa ere bazen. Amaren ardura izan ohi ziren dendako kontuak, eta aita harrobian egin zuen lan gerra hasi zen arte. Gerra ondorenean, etxean eduki zuten herriko telefono bakarra. Carmen gazterik joan zen Bar Urangara neskame (Tolosan). Hogeita zazpi urterekin ezkondu zen, Irurara, nahiz eta gerora jaiotetxera itzuli zen bizitzera.

Jexuxa Uranga Alberdi (1925)



Ama Albizturko Itxaso baserrikoa zuen, eta aita, Laskibar baserrikoa. Jexuxa Albizturko Elane-n jaio zen, nahiz eta bera jaiotzerako herritarrek Estanga deitzen zioten etxeari. Izan ere, Elane taberna, denda eta estankoa ere bazen. Jexuxa zortzi senidetan zaharrena zen, eta hamahiru urterekin joan zen neskame lehen aldiz, Tolosako San Esteban tabernara (ondoren Bar Uranga izango zena). Handik Gebara etxera joan zen lanera, neskame, beti ere, eta hamabost urte zituela etxera itzuli zen. Etxean, ordea, jende nahikoa bazen eta lan gutxi, eta berriz ere lanera alde egitea pentsatu zuen. Hala ibili zen, Villabonan eta Donostian, Hotel Floridan lan egitera iritsiz. Donostia gustatu, nonbait, eta bertara ezkondu zen.

Salvador Zubizarreta Arruabarrena (1930)



Albizturko Goikoerrotan jaioa. Aita Azkoitiko Martirietakoa zen, eta ama Hernialdekoa. Aitaren anaia okina zen, eta aitari saldu omen zion Albizturko okindegia. Salvador, zazpi senidetan bosgarrena, errotan eta okindegian hezi zuten, eta txikitatik jabetu zen okinaren langintzaz. Gerra garaian, ordea, errota itxi zuten eta ogia saltzea debekatu. Hala, gurasoek baserri bat hartu zuten errentan, nonbaitetik biziraun behar zutela-eta. Gerra bukatu ondoren, ordea, Salvadorrek hartu zuen okindegia, eta handituz eta berrituz joan zen. Geroztik, etxea bertan izanik, ez da okindegitik urruti ibili.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Herria, azpiegitura

1.1. Lehenik argindarrik ez, gero argindar kaxkarra

- **Hizlaria(k):** Uranga Alberdi, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ALB-005/019
- **Iraupena:** 0:04:26. **Hasi:** 00:27:02. **Bukatu:** 00:31:28
- **Transkribatzailea:** Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- **Laburpena:** Albizturren argindarrik ez zen garaian hozkailua ekarri zuten etxera, eta funtzionatzen ez! Gerora jarri zuten argindarra herrian, bi presatatik, baina, erditan argirik gabe izaten omen ziren.

Transkripzioa

- Ekarri zuen, jarri zuen, beti jartzen ai zien ta, ez zun ez zun balio, ta argiik ez zeola. Argiik ez zeola. Hantxe, kendu gendun ta ez dakit ze ingo gendun bota o, harek Villafrancatik ekarri zun ta han bai argie ordun baiño guk ezer ez. Ta kitto!

- Alperrik frigorifikua.

- Alperrik, bai ez dakit ze ingo gendun bota o ze ingo gendun. Harek'e asko balio ez zula ekarri zun, ta guk berriz bota. Eta argie hor zun, zentral kaxkar bat honek zeo honek, herri honek ta ezin, ezin geo gauez, eunez ematen zuen ude, hor beheko zentral batea ez dakit zertako emate zuen, beheko zentral batea eamaten zuen, ude. Eta, hantxe harekin itten zuen egunezkoa, ta gero gauen illuntzen kentzen zen argie, presa bete zein, utzi pixkaten, ta geo hurrengo euna arte ez zuen jartzen beheko, beheko martxa hoi. Eta udekin mixeri haundik. Geo tximista baldin bazan mozten zittun kable guztik, ta trumoie baldin bazan'e igual ta buuuooo, kafetera jarri aurrena geo Donostiko etxe batek jarri zun kafetera ta, zenbat aldiz aberiatze zun? Argik, argi pobrek.

- Zentrala nun zeon?

- Ba, hortxe jun zaitte hor behetik gora, eta belaxe, presa ikusiko zu hor azpikalden presa, ta aurreaxeio jun ta etxe zahar-zahar-zahar-zahar bat dao, eta hantxe dao zentrala. Ta honen attek ibiltze zun zentrala, bai. Honen attek ibiltze zun zentrala.

- Ta ze, ze izaten zan urakin indako argiya, errotakin? Nola itten zuen.

- Udakin, udakin itekoa. Ta bi errota're bazien: bat hoi, presan ondokoa, ta bestea beste taberna beheraxokoa, hantxe dao beste zeo, presa bi presa zien.

- Ta haitatik argiya banatzen zan, Albiztur guztiako?

- Bai, ta gaiña Albiztur guztiako, Santamaña, Beizama "y"... Auzo Txiki, bakizu nun daon Auzo Txiki? Han'e bai, baiño erditan argiik gabe, argiik gabe eoten giñan.

- Nola izaten zan orduko kableadua-ta, nola etortzen zan, posteik poste etortze zan kablia? Nundik etortze zan.

- Ba, nik ez dait nundik, bai puskaka o, ez dait nundik, behetik etortzen zien, behetik, behetik etortzen zien ta. Abixoa: "argiik ez omen zeon, Aldaban argiik ez emen dao, Alegrin argiik ez emen dao". Poxpolok zeakin kandelakin, ordun beti zeak eukitzen giñun, geo azkenak ata zien, holako farol batzuk "de butano", baiño hoik gero ata zien, ta haik argi politta iten zuen goien jarrita, bestela berriz kandeleroa jarri mostradora gaiñen, ta mahaien gaiñen'e bai ta, holaxe. Mixerie zan.

-Ta bonbilla hayek, itte zuenen nolako argie itte zuen?

-Ttikie, ttikie, ipurtargi, ipurtargi, ttikie. Ta haundie itte zuenak e jartze zittuen batzutan ta lehertze zien ta, kitto.

-Izate zan, paretan bi kuarton arteko paretan zulua in ta bertan bonbilla ta...

-Baita, baita, hemen e bazien hola. Bai. Zulua in tabiken ta, bitargi ite zula, jesus! Holaxe.

-Ibiltze zenduen kinkea o...

-Baita, kinke. Gasolinakin o eztaikit zenekin holako zea farolillo, gaiñea geo kinke kea zikiñe zun, dana zikintze giñin ta, jesus, desastre. Geo etxe guztitan su bajuk zien, su bajuk ta, jesus!

1.2. Etxean ura izateko tranpak

- **Hizlaria(k):** Uranga Alberdi, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ALB-005/025
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:37:21. **Bukatu:** 00:38:30
- **Transkribatzailea:** Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena:** Etxean ura izateko aitzak tranpak egiten omen zituen.

Transkripzioa

- Ba al dakizu ze itten zun harek? Ganbaran, ba berrehun litroko uda zea jarri, bidoia, ta hemendik mangak sartu, bete arte bete arte hue euki, [...] hartatik gastatu, eatea-eta honea, baiño sukaldeako ta behar zan ude, hemendik betetzen zun. Ta geo, hara ude aittu dek ba, berriz´e sartu, ta "lley puesta trampa puesta" esaten da. Ba harek hoixe itten zun. Ez zeola eukitzeik kontinuantemente ude hola zean, betetzen kontinuantemente ta iñor etortzen bazan ude eatea-o, atea azkar e, behik o idik ude edatea hola, atea azkar [...] atzea sartu, ta holakoxe martingalak! Zenbat gauze eakusten uen e, eziñek eta ezak-eta.

2. Iritziak

2.1. Bizimoduaren aldaketa

- **Hizlaria(k):** Uranga Alberdi, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ALB-005/022
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:34:25. **Bukatu:** 00:36:37
- **Transkribatzailea:** Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Lehendik hona aurrerapen asko egin omen da. Atzerriko irudiak ikustean gogoratzen da Carmen lehengo bizimoduaz. Hemengoan aldatu omen da, bai, baina hangoa ez, dirudienez.

Transkripzioa

-Hor itxe hortan bizi zien, ude ta honea, ta, Jesus! Nei deitze zitan, handik: "Karmen txo!" hango andrekin eta: "etorri!". Ta goitik, goiko balkoi hue oain

arreglatu due, goiko miradore hori ez zun, leiho txiki bat. Ta atatze zan, balko, balkoi bi hoitako batea, ta zestoa botatzen zitan, ta zestoa botatzen zitan ta esaten zitan: "ekarri ber dittuzu, ardoa, oliua, azukrea, ez dakit zer ta bakit zer", zesto txiki bat. Zestoa beai uzten niyon, ta nik hartu beste zesto bat eta harea enkargukin. "¿Qué adelantos, no?". Hola oain ikusteie zean, atzerri hoitan. Nei askotan goatzeie haik gure bizimodue. Jarri han zeai beire ta, hizketan ta ez zaie entenditzen baiño, nik esaten nun joe gu holaxe ibiliko giñuan. Honbeste denboan aurreatua dao hau, honbeste denboa gutxin. Ta han beti igual dare! Hemen, berriz, hamen behintzat Jesus! Hemen aurreatua bizimodue buf, hasi jatetik, garbitasunekatik, labadorakatik, ude etxero. Gaiña beida, guk dakau goien pisoa, ta han ude dao: ude komunen, baiñeran, nik ez dait zenbat tokitan ude. Bigarreno pison'e, igual. Hementxe dao bigarren komuna, "cuarto de baño", hemen, honbeste ude ta, ta lehen ude hoi danak erango zien, nun izango zien ba? hoi da jakin beharrekoa. Zenek adelantatu o ze. Francotik honea ein die hoik.

3. Familia eta harremanak

3.1. Besteen etxetan itulan egin, taloa ta esnea hartu eta gustura etxera

- **Hizlaria(k)**: Uranga Alberdi, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ALB-005/027
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:38:45. **Bukatu**: 00:40:13
- **Transkribatzailea**: Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- **Laburpena**: Etxea errepide bazterrean, ura bertan, taberna, denda, estankoa... Carmenen etxekoek gainontzeko baserritarrek ez zituzten baliabideak zeuzkaten. Hala ere, ez zuten besteekiko ezberdintasun handirik sumatzen. Besteen etxera joaten ziren itulan aritzera.

Transkripzioa

- Notatze zan difeentzik? Gainontzeko baserritarren ta, zuen arten o, sumatze zan, zoze difeentia o?
- Gu etxen, nik beti ezautu det, txapa, ekonomika, beste iñun ez, hemen danetan, danetan, danetan, "sin fuego", su bajo bajo-bajua. Hoi gustatu iten zitzaion, han ondón exeita eoteko ta, gustatu iten zitzaion. Baiño, bueno, geo txapak jarri zittuen ta txapa jarri ezkeo, hobetogo, uain egurre txikitzen ta lan gehio ta, su bajun sartu hemendik haraiño egurre-ta, aurreratu sue itteko-ta
- Ta sumatze zan ba gainontzeko umek ba lan gehio in ber izate zuela soron, o ganadukin ta zuek librexio?
- Bai, guri deittu itten ziguen batetik ta bestetik ta, aber ittulira jungo al giñen ta, baietz jungo giñela ta, han illuntzen merienda ematen ziun ta etxea.
- Gustoa jute ziñeten?
- Bai, egualdi udan beti izaten zan soroko lana ta ondo, ondo ibiltze giñen. Talo ta esnea jan illuntzen ta etxea.

4. Euskara

4.1. Eskolan maistrak erdaraz, eta haiek ulertzen ez

- **Hizlaria(k)**: Uranga Alberdi, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ALB-005/029
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:40:16. **Bukatu**: 00:42:27
- **Transkribatzailea**: Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Eskolan ez omen zuten askorik ikasi. Maistra erdalduna izanik, gehienek ez zutenez gaztelaniaz hitz egiten, larri ibiltzen omen ziren. Errieta egin arren, euskaraz egiten uzten zieten eskolan.

Transkripzioa

-Ta, gaiñontzen, eskolan o notatze zan, kalekok igual eunero jutun ziala ta, bestek berriz... askotan kale...

-Bai, maistra´re, jartzen giñun maistra jartzen zan aurren aurren bea. Ta ume guztik illaran, illaran-illaran, bazien ordun´e alkatenak eta holako zea, haundizkik, haik danak, haik danak maixun ondón, gu berriz atzeko puntan, askotan ezta leziyoik hartu´re, ta ezta ezta ezta, ez genun eze ikasi, ezta ezer´e! Ezta ezer´e! Geo gure ondorengo Jexux difentzi earra.

- Nungoa zan zuen maistra hoi.

- Hil zan aspaldi, Maria Calzada, "de Madrid" o ez dakit nungoa zan. Ta gaiñea hoi zan, guk ez geñikiun erdeaz pitoik´e, ta dana-dana, harek hitzeiten zun haikin ta, orduako´re radioa bazan etxe baten ta, baiño ezer ez, ezer ez.

- Bazan ordun umetan iñor erderaz entenditze zunik?

- Ba, ume-umetan iñor ez, geo ba [...] kolejiua o zeoze, handizki hoik ordun bai baiño, dana, dana, dana euskera.

- Ta ordun, eskola jun ziñeten aurreneko eunen, erdera baten hasi zanen ze pentsatu ote zenduen.

- Auskalo ze pentsatu, geo bazien e, eote zan hemen pratikantea, kastellanoa. Kastellanoa pratikantea, maestra, maixue, ta hoik kastillanoa zoze hitz eiten zuen ta, gu baiño lehen hasitakok bazekien baiño guk bueno, ezer ez, ezer ez!

- Ta euskeraz hitz eiten uzte zizuen eskolan?

-Bai, errita iten ziun baiño uuf, errita, errita: "A ver en castellano, quién habla", ta...

5. Lanbideak

5.1. Telefonoa etxean, eta enkarguen truke hurrak

- **Hizlaria(k)**: Uranga Alberdi, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ALB-005/031
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:42:36. **Bukatu**: 00:44:13
- **Transkribatzailea**: Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Beste batzuk
- **Laburpena**: Herriko telefono bakarra beraien etxean zuten. Laskibar baserrikoek izan zuten lehenago, eta haiek Tolosara joan zirenean,

etxean hartu zuten. Aitaren ustez erdaraz ikasteko era ona zen telefonoa etxean edukitzea.

Transkripzioa

- Geo telefono bat e, bakarra gendun...
- Herrin, zuena zan telefono bakarra?
- Bai, baiño aurrena beste batzuek euki zuen, aurrena beste batzuk.
- Zeintzuk euki zuen ba?
- Laskibar, Laskibar ta, Laskibar zien tente jende, zea xamarrek, eta haik eukitzen zuen etxen, ta enkarguk, amona zaharra bizi zan ta, neska alaba ´re edadekua ta, enkarguk guri deitzen ziun itteko: "Bueno, jungo al zea eskolatik atatakon halako basarrita?" ta, "Bai", ta beste: "Zu jungo al zea halakota?" ta, "Bai", eskubete eurre ematen ziun, eurre e, ur handiz, ta harekin "a hacer encargo".
- Ta gustoa gaiñea.
- Gustoa gaiñea. Etxe hontan ´e ez zan ba hola basarriko lanik, gaiñontzen basarritan, lana geatu gabe. Ta mutilek ´e koskortuz geo danak mendia lanea-ta, bizimodu zea izan zan, goor xamarra.
- Ta ordun zuek, han Laskibarrek utzi zuen, zeatik utzi zuen?
- Jun in zien Tolosa bizitzea, eta gu amak ez nahi, gu amak lehen proatuta zeken etxe hartan, goiko etxe hartan amonakin ta, atte [...] bizitten zienen, ta zeatuta zeken proatuta zeken ta amak ez nahi, amak ez nahi ta attek bai, attek esate zun erdez ikasteko-ta ona zala.

5.2. Telefonozko enkarguak entzun eta idatzi. Erdaraz idazteko komeriak!

- **Hizlaria(k)**: Uranga Alberdi, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ALB-005/033
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:44:59. **Bukatu**: 00:47:27
- **Transkribatzailea**: Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Beste batzuk
- **Laburpena**: Telefonozko enkarguak iristen ziren, eta udaletxekorako zirenak idatzi egin behar; haiek komeriak! Bestelako abisuak ere heltzen ziren, eta borrokan ibiltzen ziren anai-arrebak, telefonoa nork hartuko.

Transkripzioa

- Zuen ama Laskibarkoa zan?
- Ez, gurea? Ez.
- Ordun, telefonoa nundik zeukan ba, proatuta?
- Ba, hor jun ber zuen, alde in ber zuen hortik, ta haik ´e baten batei eman in nahi ba, eman in nahi ba, ta gue atte laune-o zuen hango mutilek eta, gue attek esaten: "Bai erdez ikasteko ta ona dek hoi", "Pepito se llamaba" ta, bueno, ekarri zuen behintzat.
- Nola ekarri zuen, zer zan ba telefono hua?
- Ez dakit nola ekarri zuen, ez dakit nola. Baiño geo guk eskribitzen-ta oso gutxi gendukan, eta aiuntamentoa etortzen zien: "A ver un circular", mekauen, haik komerik, haik parrak itte zittuen [...]. Haik hartzen zuen, karta hartzen zuen eta geo eskribitua ´re bai, Jesus.
- Ze in ber izate zenuen zuek.

- Eskribittu, haik telefonistak esan ta guk eskribittu. Jesus, haik parrak iten zittun, sekretario bat bazan. Bueno, akatuko nun gustoa. Geo etortzen zan bea, sekretario hori: "honek ze esan nahi du?". Hau [...] ezin letu, Jesus! Parre itten zuen, parre? Parre itten zuen. Nik esaten niyon: "Ez zioke ba, txikiri parre ittea ez baldin bakiu e, baiño hala itten zuen ba par, nahiko par, pentsa zazu.

- Ze klaro, zuei telefonoa jarri zizuenen, nun jarri zenduen?

- Hementxe, sukaldeko ondo ondo errez aitzeko moun.

- Ta, harek jotze zunen?

- Hartu itten gendun. !Hartzak hik, hartzak hik" ze izango ote zan bildurrez, ta askotan zien ba: "Jun zaitte halako tokita ta esaiozu amona hil dala ta entierroa dala holako ordutan", eta "bestea jun zaitez ta esaiozu betenario hoi bialtzeko honea, zeatik behieu umia in dula" ta holako abixok.

- Euskaldunak izaten zien normalian.

- Bai, bai bai. Baiño, Jesus! Ta gu baiño gutxigo zekienak´e bazien ta.

5.3. Deiak jaso, enkargua eman, "propioa" ordaindu.

- **Hizlaria(k)**: Uranga Alberdi, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ALB-005/035
- **Iraupena**: 0:03:08. **Hasi**: 00:47:34. **Bukatu**: 00:50:42
- **Transkribatzailea**: Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Beste batzuk
- **Laburpena**: Herri guztitik etorri ohi zitzaizkien etxera deiak egitera. Deiak jasotzeagatik ere, "el propio" ordaindu behar izaten zen. Eta harrobikoei deiren bat jaso zutela abisatzeko, trapu gorri bat haga luze batean jartzen zuten etxe ondoan, harrobitik ikus zezaten.

Transkripzioa

-Herri guztikok batea biltze zien honea. Ta Laskibarren zeonen, danak harea.

-Ta ze izaten zian abixuk, betenaio kontuk, heriotzak...

-Heriotzak, betenario kontuk, entierro kontuk, igual umea jaio zala nunbaiten ta halako eunetan zala bataioa, o baten batek miñe hartu zula ta klinikan zeola ta holako, prezisok, oso prezisok, ta igual hoi deitzen zizuen ba, ze esango dizut nik? Donostitik-o, handik honea etorri zaite enkargo horrekin, ez da posible! Bazien entierrotakok eta norbeak etortzen zienak´e, etxea bixita iñez ta holako hil da ta holako hil da-ta, bazien, etortze zienak, oiñez, oin ze ingo ote genduke?

- Bat´e ez esan igual. Ta zuek ordun enkarguta harea ta honea ibiltzen ziñeten, ta inkargua emate zenduenen...

- Inkargue zea gure amak-eta ber izaten zuen a "el propio" eskatu, "el propio" esaten zien, eta hoi zan ba "el propio" han telefonoa jartzen zunak paatzen zun zea, gastue telefonokoa, "y luego pideme el propio tanto", bost pezta o hiru pezta-o: "¿Está conforme pa pagar?", "Es mucho igual", ta hortxe, "Bueno, bueno, yo estoy conforme yo estoy conforme para hacer el encargo", "¿Pero me hacen el encargo?", y "Si, si, ya le haremos", ordun etortzen zan hillien azkenen propio dirue ta ordun ba hue partitzen zan.

- Ta gero aparte, zuek juten ziñeten enkargua eamatea, baserri hartakuak o zeoze ematen zizuen?

- Bai, jenealen ematen ziun o fruta pixkat o intxor batzuk o txokolate ta

ogie o karamelo batzuk, hola zeoze umeei ematen zaiona.

- Ta ordun ze ibiltzen ziñaten elkarrekin burrukan? "Ni jungo nauk eta ni jungo nauk"-eta.

- Hola urrutita ta hola anaiek bialtzen giñun, hiru anai bagiñun ta anaiek-eta. Geo atte´re iual jute zan gaue baldin bazan ta urjentea-ta, hola, hola. Ta geo esan nizun lehengon, zea, hemen hor atzen dao harrobie, atzen, ta ni umek eskolan hasi nittunen ta neonek ezin ba jun ta, sartu palo luze bat ta jarri hari zea, trapu gorri bat, ta hue haizek astintzen zun, haizek hola ibiltzen zun ta, seittun etortzen zien. Handik ikusten zuen, ikusiko zu gero, handik ikusten zuen ta, earki.

5.4. Albizturko harrobiko lanak

- **Hizlaria(k):** Uranga Alberdi, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ALB-005/036
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:50:42. **Bukatu:** 00:54:16
- **Transkribatzailea:** Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Etxeginak
- **Laburpena:** Albizturko harrobia beraien etxekoa zen. Harria eta hondarra saltzen zuten. Tiroka ateratzen zuten harria, eta gero eskuz txikitzen zuten.

Transkripzioa

-Zuen anaiek eta, harrobin itte zuen lana?

-Ez, geo harrobie bela, gerra denboan da dana nahastu zan ta, gue attek eta´re ez dakit zeatik utzi zuen, harrobie. Nik ez dakit zeatik utzi zuen.

- Zuen aitana zan harrobiya berez?

- Bai, harek basarrikoa, Itsasokoa, ta nik ez dakit zeatik utzi izango zuen o, nik ez dait.

- Jende asko ibiltze zan lanen?

- Bertako jendea e, bertako jendea. Ba bat, bi, hiru, lau, ba, zortzi hamarren bat laun o hola. Bertako jendea, ba kanpotik eta iñor ez zan, nola etorriko zien? Oiñez?

- Ta saldu iten zuen geo harriya o, karia inda o?

- Hondarra, hondarra, Donostiko zea´re, hamengo harrikin inda omen da, Donostiko, zer da, erreka e, putzu izkiñen daona Donostiko, ez dait zer hemengo harrikin ta harrie ba al dakizu nola eamaten zuen? galeratan, karrotan, ta pixue handie baldin bazeon, bi harrikin kargatuta karroa.

- Ordun nola iten zuen, horko paeta puska dana harriz, nola ateatze zuen harriya?

-Tirok iten zittuen, tirok ite zittuen, "tetetetetetete", ta geo sartzen zuen zea kartutxo ez dait zer, tiroa, tiroa, tiroa, ta tiroa botatzeko zean, etxea sartzen giñen. Bai, ta geo botatzen zun "pum!". Tiroaldi bat eta geo ya ateatze zuen harria, ta geo harri hoi txikitze zuen, ta geo hondarra itte zuen ta...

- Txikitu nola txikitze zuen?

- Donostiko Kursala, Albizturko harrikin inda, banekin, ta gue atte ta, ta irik ba, eztait zenbat pare ibiliko zittuen, ez Dait.

- Ta harri hua txikitze?

- Harri hua txikitze? Eskuz asko, zulo bat in harrieri´re, harri haundi bati zulo bat inda, zulo bat inda, harei´re sartzen zien munizioa o zeoze, geo

partitzen zan baiño, partittu, koxkau. Oain hause inda uzten due hor, hause inda, baiño ordun, lan, lan nekosoia ta motela lana, ezin, ta oain "en un santiamen, ya está".

- Ta, ordun abixua nola ematen zuen, tirua bazijoala, bulla baten o?

- Aittu ite zan, aittu, han goiko kamion izkiñan jarri itten zien, kotxentzako ta, ta beheran´e bai, kamioa errespetatzen zuen, geatu itten zien ta, ta zea bandera [...] jendeai zeatzen, hue zan harrobian bertako, harrobian bertako zan hue.

- Ta zuek zeatik sartzen ziñeten etxe barrua, tirua zanen?

- Harrik igual etortzen zien ta.

- Honeaiño bai e? Harri pusketa, harri txintxorrak o?

- Txiki, txiki xamarak, bai. Hara tiroa ta, tiroa.

5.5. Gerra garaian egin zuen harrobiarenak

- **Hizlaria(k):** Uranga Alberdi, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ALB-005/037
- **Iraupena:** 0:05:44. **Hasi:** 00:54:16. **Bukatu:** 01:00:00
- **Transkribatzailea:** Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Etxeginak
- **Laburpena:** Gerra aurretik izan zuen harrobiak garairik onena. Gerra garaian behera egin zuen negozioak.

Transkripzioa

- Ta ordun gerra denboran, nahastu in zan erabat.

- Dana nahastu zan. Nik ez dakit. Gue negozioa´re bukatu zan, attai kamiona kendu zien, ez giñen gu politikuk ez ezer ez, ez gendun ezertan, ez gendun ezertan, ez, ez, ez eskubirik ez ezkerrataz hitz ein. Ez genekiun ezkerra zen zan eta eskubi zer zan, baiño nik ez dait zeatik, zeatik, dana nahastu zan gue negoziua. Gero aitte gerraa eraman zuen, ama bakarrik hemen, dana nahastu, dana, ta geo kitto, ez zan gehio hasi. Ez zan gehio hasi. Hala segittu balu, ez dakit nola eongo giñan, atzerrin bezela igual, han bason janez-ta, baiño nik ez dakit geo nola adelantatu zan, ni ezkondu nitzen hemendik, klaro sasoi etorri ta jendea zortzi, danak neskame ta morroi, da ni ezkondu nitzen "con veintisiete años" ta "veintisiete años, y", jarri nitzen Iruran, Iruran jarri nitzen, eta beste orduako zaharrena ezkondata zeon ta ni neskame, "en un barrio de Tolosa". bar Uranga. Izeko-osabak zien haik, eta han ein nittun ez dakit bosten bat o seien bat urte, eta geo nobiyua in nun ba ta ezkondu in ber zala, ta etxe hau triste zeon, danak alde inda, batzuk neskame ta bestek, hemen´e dana atzeatu zan ba ta ez zeon diruik´e, ta ezkondu in ber gendula ta geo baten bat etorri ber zala etxea, baten bat etorri ber zala etxea, ta nik esan nion: "Bueno etxea aber ba zaharrenetik zaharreneia hasi berko zue". Ta zaharrena´re ondo zeon ta bigarrena´re bai ta, ondo ta, bueno nik jun berko nula, nik, etxe hare zeon, "de cuando la guerra estaba". Ta etxe hare desastre zeon ta etxe hutsek´e asko, jende berri hau etortzen hasi zan arte ta geo ba, bueno ba etorri giñen ta ume txiki bat bagendun orduako zaharrena Jexux, han goien etxe polit askoa auken huaxe da, eta hue gendun ta etorri giñen ta, hori, hue hotzikara ematen zun, lehengo tokik eta zezken baiño, eze in gabe urte askon ta, [...] bueno, etorri giñen behintzet. Ta nola lehen lehenoa´re beti taberna izan dan, nik´e taberna jarri. Guk ez dakiu besteik, Tolosan

´e neskame eon nitzen ta, nik´e taberna jarri ta bueno, ondo.
- Senarra zendun, irurarra? Irurakoa zendun senarra?
- Ez, Albizturkoa.
- Albizturkoa?
- Bai, hementxe dao, ateatzeko esan ber diot. Holaxe, hasi giñen da, bost ume izan giñun da haik´e hazi giñun da, ondo, primeran. Ta oain ba, oain erretiroa hartuta, ta danak hementxe geatu die gue seme-alabak, ez zuen iñoa juteko gogoik hemendik ta.
- Seiñale ona.
- Esan dizut, lau mutil ta hemen alaba geatu zan ta, primeran. Honek eamaten du oain hau.
- Ta taberna jarri zendunian berriz´e hemen, seitun hartu zun martxa?
- Bai, ez zan taberna zea haundiik, beste fundamentu, gu bezelaxe zeren ta jendeik ez zan etortzen ta, kotxeik´ez zan arten da, baiño pixkana-pixkana-pixkana-pixkana, dana piztu!
- Ze ematen zenduen ordun tabernan? Ze jenero izaten zan?
- Ba jenero aurrena hasi giñen beti basarritarrak ez zien ba iñoa ateatzeko, iñoa ez zien ateatzeko ta nahi zuen ba, lanbatetan-ta atera nahi izaten zuen ta ba jartze zuen ba antxume jana o arkume jana o txerri jana o beti zeoze, biltzeko zea, trikuk´e bai jartze giñun. Ta jartzen zuen zea, lanbaten, ordun jenealen lanbaten ta igual biltzen zien dozena bat laun-taa, ta hoik txerrik jan da "viva la juerga!". Ta geo jai goizen izaten zien meza, ta ordun jende guztie mezeta etortzen zan, horkok eta hangok eta hemengok-eta. Goizen pattarra atea, pattarra atea ogiekin ta, hue´re jaten zuen ta. Geo jai gauetan´e zahar batzuk alkartzen zien, gaztek bizikletan baldin bazuen alde iten zuen, baiño. Hola alde itten zuen ta geo, geo bakizu ze pasa zan? Hasi zien, musen ta hasi zien jendea moittu zan pixkat, ta geo kotxek hasi zien pixkana-pixkana...

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Etxeko giroa eta lanak (ALB-001/002)

Bere ama egunero Tolosara joaten zen esnea partitzera eta handik jateko zerbait ekartzen omen zuen. Hamar urte zituela eskola utzi eta umeek arduratzen hasi zen. Harrituta geratzen da gaur egun umeak nola zaintzen diren ikusita. Bere garaian umeak nola txukuntzen zituzten kontatzen du.

2. Tolosako familiei laguntza eskaini (ALB-001/003)

11 urte zituela, gerra iritsi zen. Tolosan esnea erosten zieten familia batzuek laguntza eskatu zieten, baserrian babesteko; bi aldeetakoei eskaini zien laguntza. Baserrian gelak egokitu zituzten; eta gerran bi bandotan banatuta zeudenak, beraien etxean, ongi konpondu ziren. Bi familien izenak aipatzen ditu. Mirariak egiten zirela pentsatzen du.

3. Baserrian gerratik babestu zituztenei ihes egiten lagundu (ALB-001/004)

Eraso bat izan zen goiko mendian; soldaduak jaitsi ziren, eta etxetik ateratzea eragotzi zien. Amak ezkutuan atera zituen baserritik gordeta zeuzkaten

lagunak: batzuk Zelatun menditik barrena Zarautzera; eta besteak, berriz, Altzo mendi aldera. Hori guztia bere amak nola egin ote zuen ez du ulertzen, ezeren truke laguntza eskaini zien.

4. Gerra, bizipen gogorra (ALB-001/006)

Gorriek eta erreketeeek inguruko mendietan liskarrak izan zituzten eta hildakoak egon ziren. Gogorra izan zen. Gorputzak bertan utzi zituztela uste du eta oraindik ere litekeena da batzuk bertan egotea. Gosea ezagutu zuten. Gauza tristeak ziren. Gaixotasunekin jende asko hil zen gerra ondoren, tisikoa. Gaur egungo egoera ere negargarria iruditzen zaio. Mundua erotuta dagoela dio. Zigorra etorriko dela uste du.

5. Baserriko errenta ordaintzea (ALB-001/007)

Beren etxe ondotik jende asko pasatzen zela gogoan du. Inguruko gehienak maizterrak ziren eta jabeak errenta kobratzera etortzen ziren. Beren baserriko nagusia Vizconde Zabala zen. Errenta Eguberritan pagatzen zen. Oilasko hoberenak kalera eramaten zituzten errentako dirua biltzeko. Gaizki ibiltzen ziren pagatzeko. Gaur, berriz, umeen gastuez kexatzen gara eta dena eskura jartzea nahi dugula iruditzen zaio.

6. Erdaraz ez jakiteak sortutako arazoak (ALB-001/008)

Gizonezkoekin batera sorora joaten ziren eta umea manta zahar baten gainean uzten zuten. Etxean umeak zaindu zituen hamar urte zeuzkanetik. Gaur ez dute kontuan hartzen zaharrek nolako lana egin duten. Pena du eskola utzi izanagatik. Nahiago du erdaraz ikasi euskaraz baino. Urnietara festetara joaten ziren eta apurua pasatzen zuten treneko billetea erosi behar zutenean, erdaraz ez jakiteagatik. Euskara ongi dagoela uste du baina erdaraz jakinez gero, hobeto moldatzen garela dio. Berak eskolan irakurtzen eta idazten ikasi zuen. Telebistako pelikulak erdaraz ezin ditu ulertu.

7. Eskolan dena euskaraz ikasi zuten eta erdararen falta sentitu du askotan (ALB-001/009)

Erdararen falta esnea saltzera joatean ere sumatzen zuen. Pixkanaka hitz batzuk ikasi zituen. Nahiz eta gaizki hitz egin, besteek ulertzen badute konformatzen da. Apaizek euskaraz erakusten zieten baina beraiek erdara ere bazekiten, baita latina ere. Eskolan, Xabiartxo liburua erabiltzen zuten. Batuketak eta kenketak ere euskaraz ikasi zituzten. Jende gehienak laguntzen duen arren, mespretxuak ere bizitu ditu hizkuntzarengatik. Ez jakitea gauza motza dela pentsatzen du.

8. Taloa egiteko modua (ALB-001/010)

Beste familia batzuk aipatzen ditu. Etxean ogia egiten ikasi zuen, etxeko mutilak betetzeko talo errea prestatzen zuen. Saria ateratzeko moduko taloak egiten ikasi omen zuen. Taloa nola egiten zuen azaltzen du pausoz pauso.

9. Babarrunak egiteko modua (ALB-001/011)

Etxean babarruna izaten zuten eta pausoz pauso azaltzen du nola prestatzen zituzten goizetik hasita. Babarrunak hamabietarako pronto egon behar izaten ziren. Gerra ondoren oliorik ez zen bilatzen eta estraperloan aldian behin litro bat lortzen zutela gogoratzen du. Sardina zaharrak izaten omen ziren eta olioaren ordeaz haietako batzuk jartzen zituzten eltzearen gainean, gustua emateko. Orduan ez zegoen minbizirik.

10. Ogia egiteko eta jateko modua (ALB-001/012)

Ogia egiteko legamia behar izaten zuten. Ogia bi egunetik behin egiten zuten. Hamasei urte zituenean ekonomika jarri zuten etxean. Ekonomikako labea sartzen zuten ogiaren masa eta legamiari esker harrotzen zen. Ogia koskorretik hasi behar zela pentsatzen zuten eta gurutze egin ondoren hasi behar zela jaten. Ogia lurrera eroriz gero, jaso eta musu eman behar izaten zitzaion.

11. Errezoak eta bedeinkapenak (ALB-001/013)

Bere garaian, jaten hasi aurretik erreztatu egiten zen. Ur bedeinkatua paretan izaten zuten eta goizean eta gauean harekin aitarekin egin behar izaten zen. Mahaia aita edo ama bedeinkatzen zuten. Gauero arrosarioa erreztatzen zuten. Etxekoek fede handia zuten. Trumoiak hasten zenean, erramua sutara sartzen zuten. Gaur egun, ez dago horrelako federik. Santa Kruz egunean, terreno bakoitzean kredo bat erreztatu eta gurutzea jartzen zutela dio, tximistak okerrik ez egiteko. Albizturren eta Ikaztegiaren, tximistaren ondorioz hildakoak egon zireneko kontakizunak gogoratzen ditu.

12. Fedea, Eliza, konfesioak eta bekatuak (ALB-001/015)

Lehen dena sinesten zen. Lehen apaizak jauntxoak zirela pentsatzen du. Kongregaziora joaten ziren eta apaiz batek ilara izaten zuten konfesatzeko, "manga ancha" zeukalako. Albizturko elizara joaten ziren. Urkizun eskola eta komunio txikia egin zituzten. Mutilek ukitu al zituzten galdetzen zien konfesatzerakoan eta ondoren penitentzia ezartzen zieten. Baltsean ez ziren ibiltzen, bazterrean gelditzen ziren kongregaziotik botatzeko beldurrez, fama txarrik ez izateko. Tolosara joaten zirenean, ezin izaten zuten dantzarik egin. Apaizek dena ongi ez zutela egiten pentsatzen du.

13. Umeen jaiotza (ALB-001/017)

Egunez esnea saltzen ibili ondoren, gauean ama umea eduki zuela gogoratzen du. Jaiotzaren azalpena, aireplanotik umea gauean bota zutela edo horrelakoren bat izaten omen zen. Oso inuzenteak zirela pentsatzen du. Erditzean laguntzeko, amona etxera etortzen zen egun batzuk lehenago.

14. Jaioberrien bataioa (ALB-001/018)

Umea gauean jaio eta hurrengo egunean bataiatzen zutela dio, hiltzen bazen linbora joateko beldurrez. Bataioa ospatzeko oiloa hiltzen zuten.

15. Emakumeak ezin zituzten galtzak jantzi (ALB-001/021)

Bere garaitik gaur egunera eguraldia aldatu dela dio. Bere garaian elur gehiago egiten zuela uste du. Gonekin ibiltzen ziren neguan ere, galtzak jantzea bekatutzat zutelako. Albizturko gizon batek Goiazko andrea hartu zuen, hura galtzak jantzita Hernio mendira joaten ikusi zutela.

16. Haurdunaldiak eragozteko sistema (ALB-001/022)

Albizturtik Urkizura bizitzera joan zenean bizimodua aldatu zitzaion eta aldaketa ona izan zela uste du. Lau seme-alaba izan zituen; ume gehiago ez izateko pastillarik ez zegoenez, senarrak logela batera eta emazteak bestera joan behar izaten zuten. Bizilagunak zortzi edo bederatzi ume izan zituen; berak, berriz, ez.

17. Donostiako Nicolasa jatetxean sukaldari (ALB-001/025)

Nicolasatik bidaltzen zizkien janariak Francoren Aieteko etxera. Francok Nicolasan koktelak antolatzen zituen. Neska askok egiten zuten lan Nicolasa jatetxean. Jatetxe hartan obeditzen ikasi zuela esaten du. Donostiako lanetik etxera bueltatu zenean, jende asko zegoen baserrian eta denentzat lan egin behar izan zuela esaten du. Udatiarrak ere hara etortzen ziren eta haientzat lanean aritzen zen: gosariak, bazkariak, afariak, oheak prestatzen, garbitzen...

18. Gerra aurreko bizimodua: "viva la juerga!" (ALB-005/004)

Etxean taberna zuten, eta gerra aurretik nahiko bizimodu polita izan omen zuten bere familiak; aita, batez ere.

19. Amaren janari-denda (ALB-005/006)

Amak janari-denda jarri zuen. Galeran ekartzen zien saltzekoa Tolosatik, eta berak dendan saltzen zuen. Herritarrek behar-beharrezko gauzak soilik erosten zituzten bertan.

20. Dendako neurriak (ALB-005/008)

Dendan saltzen zituzten produktuak neurtzeko hainbat neurri izaten ziren: ontza, libra...

21. Estankoa tabakoa nola saltzen zen (ALB-005/012)

Ettxeko denda estankoa ere bazen, eta tabakoa ere saltzen zuten bertan. Baserritarrek egiteko tabakoa erosi ohi omen zuten, eta egindako zigarro garestia, berriz, herritar gutxi batzuk.

22. Hamabost egunean behin lixiba (ALB-005/017)

Presan garbitzen zuten arropa; gutxi izanez gero, iturrian ere bai, eta hamabost egunean behin etxean lixiba egiten zuten.

23. Eskola plartikularrak Ordizian (ALB-007/003)

Hamalau urteak arte joan zen eskolara. Ondoren, eskola partikularrak hartzen hasi zen Pedro, Ordizian. Han bertan egiten zuen lo, bertako familia baten etxean. Maisu batek ematen zituen eskolak, baina lan hau utzi egin behar izan zuen gerrara joateko. Ondoren, fraide eskola batean hasi zen eskola ematen.

24. Karlistak eta nazionalistak boto eske (ALB-007/006)

Jende bila ibiltzen ziren karlistak eta nazionalistak botoa emateko eskatzeko. Kopuru aldetik karlistak gehiago ziren Albizturren. Batzokian elkartzen ziren batzuk, Circulo Carlistan besteak.

25. Gau eskola: ikasketak eguneratzeko (ALB-007/008)

Neguan gauez pare bat orduko eskola izaten zen gau eskolan. Hau eskola publikoan ematen zen, maisu berarekin.

26. Sinatzen ez zekien jendea zegoen herrian (ALB-007/009)

Pedrok eskolari ematen zitzaion garrantzia gurasoena arabera zela esaten du. Baziren sinatzen ez zekitenak ere herrian, behatzaz sinatu behar izaten zutenak.

27. Soldadutzan analfabetoentzat eskola (ALB-007/010)

Eskolaren aldekoa argudio bat zen soldadutzan eskutitzak idatzi behar izana. Hala ere, soldadutzara analfabeto joaten zirenentzat eskola bat bazen.

28. Albizturreko babarrunak Madrilen (ALB-007/011)

Baserrian artoa, babarruna eta garia zituzten. Beranduago gauza gehiago sartu zituzten, baina hiru horiek oinarritzkoak ziren taloak eta ogia egiteko. Behin, aitari entzun zion Madrilen Albizturreko babarrunak saltzen zituztela.

29. Babarruna artoarekin nahasten zuten (ALB-007/013)

Babarrunak artoarekin batera nahasten zituzten baratzean. Maiatzean landatzen ziren hauek. Hauek ereiteko lurra nola prestatzen zuten kontatzen du Pedrok. Goldea, esaterako, garia ereiteko erabitzen zuten gehienbat.

30. Nola ereiten zenuten? (ALB-007/015)

Pedrok baratzean aleak nola ereiten zituzten kontatzen du.

31. Babarruna urrian jasotzen zen (ALB-007/016)

Babarruna eguraldi lehorra zenean jasotzen zuten, urrian. Ondoren lehortzen uzten zituzten, eta gero saldu.

32. Dirua behar zenean, babarruna saldu (ALB-007/017)

Ettxerako alerik txikienak uzten zituzten, handienak saltzeko. Hasiera batean neurrira saltzen zen, ez pisura. Lakaria erabiltzen zuten Pedrok eta familiak neurri gisa.

33. Garia azaroan (ALB-007/018)

Artoak eta babarrunak egon ziren lurrean bertan landatzen zuten garia. Honek lan gutxiago ematen zuen. Garia nola jasotzen zuten azaltzen du Pedrok.

34. Herrian bi errementari (ALB-007/019)

Bi errementari bizi ziren Albizturren, eta etxez etxe ibiltzen ziren makinekin. Ordainetan, askotan, garia ematen zitzaien.

35. Patata, erremolatxa eta arbia (ALB-007/020)

Soroan patata, erremolatxa eta arbia ere bazuten. Arbia nola ereiten zuten azaltzen du Pedrok pasarte honetan.

36. Arbia nola atera (ALB-007/021)

Elurra egiten zuenean arbia lurretik nola ateratzen zuten kontatzen du Pedrok pasarte honetan.

37. Egunero babarrunak bazkaltzeko (ALB-007/023)

Letxuga, tipula, bainak... zituzten baratzean. Letxugari azukrea botatzen zioten jateko garaian. Egunerokotasunean, esnea, taloa, urdaia... gosaltzen zituzten. Babarrunak jaten zituzten bazkaltzeko, aza eta urdailarekin.

38. Baserrian bizitzea abantaila bat zen (ALB-007/025)

Goserik ez pasatzeko, baserrian bizitzea abantaila bat izaten zen garai haietan. Horregatik, zenbait kaletarrek lurak erosi eta patatak erein zituzten, jatekoa izan zezaten.

39. Gerra ostean jendea eskean (ALB-007/027)

Eskean ibiltzen ziren zenbait janari eskean, askotan ijitoak izaten ziren. Ijito batzuk, ordea, euskaldunak izaten ziren.

40. Ijitoek astoak mozten zituzten (ALB-007/028)

Askotan, ijitoak izaten ziren astoak mozten zituztenak. Hauen inguruan hamaika kontu esaten ziren, ezkontzak zirela eta, erlijioa zela eta...

41. Albizurreko euskara (ALB-007/030)

Albizurreko euskara gainontzeko herrietatik bereizten du Pedrok, batez ere Tolosatik.

42. Babilonia baserrian jaio eta bizi da (ALB-008/004)

Joxe 1921ean jaio zen gaur egun bizi den baserri berdinean, Albizturko Babilonia baserrian. Baserriaren izen berezia dela eta galdezka etorri omen zaizkie. Garai batean Babilonia deituriko baserri gehiago ba omen zeuden.

43. Senide zaharrena izatearen ondorioak (ALB-008/005)

Bederatzi senideetan zaharrena da. Zaharrena izatea okerreina dela dio, lan gehiago egin behar izaten duelako. Ez zuen jasoko zituen ondasunetan pentsatzen, lana bakarrik ikusten zuen. Bera geratu zen baserriarekin.

44. Gau eskolan ibili zen (ALB-008/006)

Txikitan eskolara joan zen urte pare batez baina etxean laguntza behar zutenez, gau eskolara bidali zuten.

45. Erreketeak nagusi gerra garaian (ALB-008/007)

Gerra denboran, erreketek bat bazen Albizturren kapitaina izatera iritsi zena, besteen kontura. Herriko gazteek txapel gorria jarrita ibili behar izaten zuten, derrigortuta, instrukzioa ikasten. Herrian guardiak ere egiten ziren.

46. Gerra aurreko kontuak (ALB-008/009)

Gerra aurreko kontuak entzunak ditu. Primo de Rivera nor zen ez zekiten, oso gazteak ziren eta. Inoiz ez du politika oso gustuko izan.

47. Errepublika garaia Albizturren (ALB-008/010)

Errepublika garaian batzuk nazionalistak eta besteak karlistak ziren. Karlistek Zirkulua zuten eta besteek batzokia. Sekretario zen karlista bat hil egin zuten eta gizon bat preso sartu zuten.

48. Emakume batzuei ilea moztu (ALB-008/011)

Nazionalista bati etxea kendu zioten, kontrakoak agintzen jarri zirenean. Emakume batzuei ilea moztu zieten eta orduan ikara pasa zuten. Hura zigor handia izaten zen.

49. Alderdien arteko liskarrak Albizturren (ALB-008/012)

Zenbait kontu ez gogoratzea hobe. Politikagatik liskar handiak izaten ziren.

50. Gosea soldadu garaian (ALB-008/013)

1942an soldadu joan zen eta Bilbon bi urte pasa zituen. Soldadutza txarra zen, miseria. Ogi gutxi ematen zien. Janaria oso eskasa zen baino ematen zietena jaten zuten, baba handiak, gehienetan. Kapitainen arabera janaria hobeagoa edo okerragoa izaten zen.

51. Bilboko bidean gertatutakoak (ALB-008/014)

Bilbora trenez joaten ziren, kostako trenean. Bidean gertatutako pasadizoak kontatzen ditu.

52. Bilbon soldaduen instruktore (ALB-008/015)

Trenez joan ziren Bilbora, kuartelera. Etxetik paketea eraman zuten jateko zerbaitekin. Soldadu bezala instruktore izendatu zuten.

53. Soldaduei instrukzioa erdaraz (ALB-008/016)

Soldadu joan zenean erdaraz gutxi zekien, orain bezalaxe, baina ulertzen zuen. Instrukzioa erdaraz ematen zuen.

54. Bizkaitarrei hasieran ezin ulertu (ALB-008/017)

Bilboko kuartelean euskaldun asko zeuden. Bizkaitar asko ziren eta haiekin ongi ulertzen ziren nahiz eta bizkaitarrez hitz egin. Hasieran ulertzea kosta egiten zitzaien baina ikasi zuten. Nafarrek erdaraz egiten zuten. Debakoak ere baziren baina bizkaitarrei baina hobe ulertzen zitzaien.

55. Euskaldunak eta erdaldunak soldadu garaian (ALB-008/018)

Bizkaitarrek Gipuzkoan hizkera polita zutela esaten omen zuten. Erdaldunekin ez zuten harreman asko. Hizkuntzarengatik ez zuten arazorik izan.

56. Soldadutzako kontuak (ALB-008/019)

Soldadutzatik ez ziren nahi adina etxera bueltatzen. Destino ezberdinak izan zituen soldadu zegoenean, okina, kalefakzioaren arduraduna, tabernaria,... Ardoa, zerbeza eta horrelakoak zerbitzatzen zituen.

57. II. Mundu Gerrarako boluntarioen bila (ALB-008/021)

Soldadu zeudela boluntarioak eskatu zituzten II. Mundu Gerrara joateko. Apuntatu ziren batzuk bertan bizia eman zuten.

58. Fabrikara lanera, bizi hobeago baten bila (ALB-008/023)

Gaztea zenean mendira joaten ziren behiekin eta momentu horietan pentsatzen ibiltzen zen. Bizi hobeagoa bilatu behar zuela erabaki zuen eta

horregatik hasi zen fabrikan lanean. Fabrikako jornala pobrea izan arren, segurua zen. Ez daki gurasoek zer pentsatuko ote zuten. Fabrikatik itzulita beste zortzi ordu lan egiten zituen etxean.

59. Fabrikan egunkarientzat papera egiten zuten (ALB-008/025)

Fabrikan egunkarietarako papera egiten zuten. Lantegiko makinak ez ziren gaurkoak bezalakoak. Orain papergintza asko hobetu dela dio. Gaur egun Txinara saltzen dutela daki. Papera egiteko pinua erabiltzen zuten, askotan kanpotik ekarritakoa. Horregatik hasi ziren bertan pinuak jartzen.

60. Soroko lanak (ALB-008/033)

Soroko lanean garai batean azaroan garia egiten zen. Lurra laiarekin jiratzten zuten. Eguna aprobetxatzeko oso goiz ateratzen ziren. Laian emakumeak ere ibiltzen omen ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-02-05

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com